

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

443/2019 Foru Agindua, urriaren 25koa, onesten duena zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari atxikitako 1. Ikuskatzaile Taldeko Atalaren buru lanpostua (kodea: 1118.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdia ebaztea

Uztailaren 31eko 363/2019 Foru Aginduaren bidez, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuko 1. Ikuskatzaile Taldeko Atalaren buru lanpostua (kodea: 1118.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2019ko irailaren 2an argitaratu zen ALHAOn (101. zk.).

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori José Ramón Ruiz García jaunari esleitzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hor. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea José Ramón Ruiz García jauna Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari atxikitako 1. Ikuskatzaile Taldeko Atalaren buru lanpostuari (kodea: 1118.001).

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren a) letran xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. 2019ko azaroaren 4an utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2019ko azaroaren 5ean jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko urriaren 25a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailleko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR